

CATHERINE WALSH

Jakintzaren geopolitikak eta boterearen kolonialitatea. Elkarrizketa Walter Mignolo-ri.

CW Jakintzaren geopolitikek zein auzi garrantzitsu planteatzen diote Latinoamerikako eta Andeetako unibertsitateari, eta guri, akademikoei?

WM. Zure galderaren lehen parteak dimentsio instituzionala aipatzen du, eta, horrenbestez, jakintzaren sorreran zimentu ekonomiko eta politikoak azpimarratzen ditu. Har dezagun berriro esparrutzat Gerra Hotzaren urteak eta arestiagokoak, Gerra Hotzaren osteko urteak. Baina gogora dezagun, hala ere, uni-bertsitatea mundu moderno-kolonialaren diseinu globalen parte bat izan zela, eta dela. Horretaz ez dut esan nahi Europa komunitate oraindik eratu gabe, ahul eta erdi barbaro bat zenean jada existitzen ziren zibilizazio handietan hezkuntza instituziorik ez zutenik. Esan nahi dut unibertsitate izenez sortu zen hezkuntza instituzioari bere-berezkoa zitzaiola gaur egun uni-berts(al)itatea esaten diogun kontzeptualizazio epistemikoa. Mendebaldearen hedatze erlijioso eta ekonomikoa unibertsitatearen hedapenarekin batera gertatu zen. Hortaz, unibertsitatearen egoera, maila horretan, aberastasun ekonomikoen banaketa planetarioari dagokionez pentsatu behar da. Baina, gainera, era berean ikusi behar da diseinu global neo-liberaletan gertatutako hezkuntzaren balio-galtzeari dagokionez, giza bizitzaren balio-galtzarekin batera gertatua hura ere. De la Rúa-ren gobernualdiko bi urtez izandako bigarren ekonomia ministroak, Ricardo Lopez Murphy, merkatu librearen ekonomian “hezia” bera, egin zuen lehen gauza izan zen aurrekontua murriztea, eta “premia” gutxien dagoen horretan murriztea, hezkuntzan. Baina tira, hori guztia badakigu. Modernidade/kolonialitate aurpegi bikoitzaren eta tokiko historien eta diseinu globalen esparruan kokatu nahian ari naiz bakarrik.

Zalantzarik ez da fenomeno horiek Europar Batasunean eta Estatu Batuetan ere gertatzen direla. Baina hala ere, eta batez ere Estatu Batuetan, unibertsitatea ez dago jada Estatuaren dirulaguntzen mendean, kapital pribatuaren finantzazioaren mendean baizik, eta medikuntza, ingeniariaritz, zientzia fisiko, eta abarren alorreko ikerketen eta “emaileen” esparruan, batez ere humanitateen eremuan. Nor dira “emaileak”? Unibertsitate -nola estatu hala pribatu- ospetsuetako ikasle ohiak dira “emaileak”, karrera arrakastatsuak egin dituztenak diruari dagokionez. Esate baterako, Melinda Gates, Microsoften magnate Bill Gatesen alaba, ikasle izan zen Duke Unibertsitatean, eta orain unibertsitateko Batzorde Nagusiko kidea da (unibertsitate handietako Batzorde Nagusietako kideak beti izaten dira esparru politiko eta ekonomikoan eragina duten pertsonak, hala nola: bankariak, senatariak, negozio gizon zein emakumeak). Melinda Gatesek duela gutxi 20 milioi dolar eman zizkion Duke Unibertsitateari, eta biek, Melinda eta Bill Gatesek, dirua eman dute orobat gradu aurreko hezkuntzako programa berezietarako. Badira kasu gehiago. Adibidez, Princeton Unibertsitateari 100 milioi eman dizkion txinatar milioidun batena, esate baterako, Estatu Batuetan txinatar ikasketen kalitatea eta kantitatea areagotzen laguntzeko. Gobernu frantziarrak eta espainiarrak diruz elikatu ohi dituzte

unibertsitateak, Estatu Batuetan espainieraren eta frantsesaren ikasketa areagotzen laguntzeko. Baina noski, aukera hori ukatzen zaie Boliviari eta Ekuadorri, esate baterako. Egoera horrek baditu bere abantailak: bitartekoak dauden neurrian, liburutegiak ongi hornituta daude, eta ordenagailuak ugariak dira. Beste aldetik, kontu nabarmena da, eta eztabaidagai izaten ari da, zein izango ote den humanitateen eta pentsamendu kritikoaren papera unibertsitateetan, egunetik egunera gero eta korporatiboagoak baitira, eta kapital pribatuak babesten baitu bertako ikerkuntza.

Itzul gaitzen Hirugarren Mundura. Aspaldi honetan, Afrikako gizarte zientzialariak, eta azken honetan baita Latinoamerikakoak ere, erreparatzen ari zaie eskualde horietako unibertsitateetako lan baldintzei. Latinoamerikan Mexikoko UNAM edo Brasileko USP bezalako erakundeak salbuespenak dira. Unibertsitate horietako bakoitzeko errektoreak Argentinako edo Ekuadorreko probintzia bateko gobernadoreak beste botere politiko eta ekonomikoa dauka, gehiago ez bada. Hau ez da gertatzen Argentina, Bolivia edo Peruko unibertsitatean; estatu unibertsitatez ari naiz, bertan egoera gero eta ez-egonkorragoak baitira (NACLAK arestian argitaratu zuen, 2000ko urtarril-otsailean, txosten berezi bat *The crisis of the Latin American University* gaiaren inguruan). Beste aldetik, ikerkuntza eta irakaskuntza maila gorena duten unibertsitate pribatuak sortzen ari dira, hala nola Torcuato Di Tella eta Buenos Aireseko San Andres Unibertsitatea, Txileko ARCI unibertsitatea, eta ospetsuen artean, Bogotako Javeriana. Eta tira, horiei gaineratu beharko litzaieke CLACSO eta FLACSO bezalako erakundeak. Garrantzia, hala ere, beste kontu batek dauka: alegia, lehen mailako ikerkuntza eta irakaskuntza erakundeak badaude ere, unibertsitatea pribatua zein estatukoa izan, UNAM eta USP bezala ekonomikoki eta politikoki sendoak izan edo ez, hemen interesatzen zaigun desberdintasuna da tokiko historien -zeinetan pentsatu eta banatu egiten baitira diseinu globalak- eta tokiko historietatik halako diseinu globalak kudeatu behar dituztenen artekoa. Labur bilduta, hemen interesatzen zaigu desberdintasun kolonialaren konfigurazioa hezkuntzaren maila instituzionalean.

Alabaina, ibilbide hori guztia erabilgarria zait galderaren azken parteaz hitz egiteko, “guri, akademikoei” horretaz. Uste dut hemen beharrezkoa dela arazoa termino zabalagoetan planteatzea, betiere, bidenabar, aurreko paragrafoan aipatu ditudan faktore ekonomiko eta politikoak aintzat hartzea ahaztu gabe. Auzi korapilatsu bat sinpletzearren, eta gehiegi sinpletzeko arriskua hartuta, “intelektualaren papera” da hemen gakoa. Hiru ardatz bururatzen zaizkit auziaz pentsatzen hasteko:

Antonio Gramscik planteatutako intelektual organikoaren ideia ez da nahikoa gaur egun, batez ere Hirugarren Mundu ohian, era berezian intelektual indigena klase indartsu bat sortu delako. Intelektualeria horrek, Freya Schiwy-k argudiatzen duen bezala, zalantzan jartzen du modernidade/kolonialitatearen imajinarioan landutako intelektual kontzeptua: indigenak, definizioz, ezingo lirakeke intelektualak izan, intelektuala letraren indarraren inguruan definitzen baita (XIX. mendeko intelektuala XVI. mendeko letratuaren eraldatzea da), eta indigenak letragabeak ziren, hau da, “argi” gutxikoak. Baina letragatik ez ezik, intelektuala “intelektoa” gatik definitzen da, eta indigenak, diseinu global garaileen arabera, letragabeak ziren; horrenbestez, zibilizazioaren bitartez “garatu” behar zen intelektua.

Akademikoaren -“scholar” delakoaren- ideiak geure buruari zenbait galdera egitera eramaten gaitu, “kultura akademiko”en eratzeaz, ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren paperaz eta akademikoaren eta intelektualaren arteko erlazioez eta desberdintasunez. Alor horretan, beharrezkoa da ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren printzipioak eta helburuak ez bakarrik birpentsatzea, baizik eta funtsean birbideratzea. Nik esango nuke esparru horretan hiru galdera erabakigarri arakatu behar direla:

1. Nolako jakintza/ulerpena (epistemologia eta hermeneutika) sortu eta transmititu behar/nahi dugu? Nori eta zertarako?
2. Zer metodo/teoriak dira sortu eta transmititu behar/nahi dugun jakintza/ulerpenarako garrantzitsuak?
3. Zer helbururekin sortu eta transmititu behar/nahi dugu halako jakintza/ulerpena?

Galdera horiei erantzungo dien pentsamendu kritikozko prozesuak lan etengabea izan beharko du (artikulu bat edo liburu bat argitaratzea prozesu horretako une berezia izango da, baina ez garrantzizkoa); ahaleginak eta jarrera-hartze partikularrak beharko dira egoera politiko oso desberdinetan, nola Ekuadorreko unibertsitatean hala Estatu Batuetan, gorago adierazi dudan bezala. Estatu Batuen gehiegikeria ekonomiko eta teknikoak zaildu egiten du pentsamendu kritikoa lantzea, gizarteak aintzat hartu eta nahiago izaten baitu “eraginkortasuna”. Horren haritik, Latinoamerikan (edo Asian edo Afrikan) lan egiten dutenek funtsezko ekarpen bat daukate eskaintzeko. Kontrako zentzuan, Estatu Batuetan lan egiten dugunok eta Afrikan, Asian edo Latinoamerikan sortzen den pentsamendu kritikoa baliatzen dugunok era berean paper garrantzitsua jokatu behar dugu Europa edo Estatu Batuetatik kanpo sortzen den pentsamendu kritikoa babes nola politiko hala material eta intelektuala emanaz. Etorkezuneko pentsamendu kritikoa ezingo da gehiago izan europar edo estatubatuar pentsamendu kritikoa edo Hirugarren Munduko intelektualek gaur egun European edo Estatu Batuetan sortzen ari diren pentsamendu kritikoa eguneratze etengabe bat. Hau da, eskuineko globalizazioaren kritika serioa baldin bada globalizazioak homogeneousiora jotzen duelakoan, kritika horrek ezkererako ere balio du. Marxismoak unibertsala izan behar duela pentsatzeak eta kristautasuna eta liberalismoa unibertsalak izan behar dutela pentsatzeak eduki desberdina dute, baina logika berdina. Beraz, nik esango nuke “akademikoaren zeregin intelektuala”, galderaren bigarren zatia erantzuteko, Estatu Batuetan, Latinoamerikan eta edonon, pentsamendu kritikoa sortzea dela, eta pentsamendu kritikoa ezin izango da izan Bibliaren ordezkari Marx izatea, edo Hegelen ordezkari Heidegger, edo Fukuyamaren ordezkari Zizek izatea, etab. Pentsamendu kritikoa kolonialitatek etorri beharko du, eskuinaren bezala ezkeraren deskolonizazio nola ekonomiko hala intelektualaren bidez. Pentsamendu kritikoa, azken batean, garrantzirik gabeko kritika baten pentsamendua da.

Horregatik, bukatzeko, kultur ikasketak edo ikasketa postkolonialak erabilgarriak eta beharrezkoak dira, baina akademiaren mugak gordetzen dituzte, baita epistemologia modernoarenak ere, pentsatzen baitu jakintza zerbait “ikastea” dela. Ildo horretatik, hain zuzen, kultur ikasketak ez dira ikasketa soziologiko, historiko edo antropologikoak ez bezalakoak. Horregatik goraitzen dira kultur ikasketak,

diziplinartekoak direlako. Unibertsitate erakundearen alderdi garrantzitsu bat da hau, diziplina arauetatik harago espazioak sortzea ahalbidetzen duelako, eta, hartara, pentsamendu kritikoa baino gehiago “zorroztasun zientifikoa” aldarrikatzen duten diziplinen tiraniak ito beharrean sentitzen direnei ahalbidetzen die leku bat izatea beren ikerkuntza eta irakaskuntzarekin jarrai dezaten. Hala ere, “pentsamendu kritikoa”ren esanahia eta “kultur ikasketak” edo “ikasketa postkolonialak” dutena oso desberdinak dira. Pentsamendu kritikoaren helburua ez da aztertzen den objektuaren jakintza edo ulerpena; aitzitik, jakintza eta ulerpena “beste gauza” batera iristeko mailak baizik ez dira, eta “beste gauza” hori laburbildu egiten dute goraxeago egin ditudan hiru galdera haiek. *Local Histories/Global Designs*-en nire xedea ez zen “ikastea” izan. Gehiago interesatu zitzaidan eta interesatzen zait “zenbait arazoren inguruan gogoeta egitea” eta ez “zenbait objektu, esparru, alor, eremu edo testu aztertzea”, kultur ikasketetan edo ikasketa postkolonialetan egiten den bezala. Azkenik, bukatzeko, zeregin akademiko/intelektuala birformulatu egin beharko da termino epistemiko, etiko eta politikoetan, metodologikoetan baino gehiago. Muga-epistemologia horrek kontzeptualizazioak eta jakintza-praktikak ekarriko ditu, Silvia Rivera Cusicanqui-k Bolivian formulatu zuenean bezala “ahozko historiaren potentzial epistemologiko eta teorikoa Andeetako (eta, nik gaineratzen dut, edonongo) gizarte zientzien deskolonizazio” lan bat egiteko orduan. Gizarte globaleko pentsamendu kritikoa deskolonizazio intelektualerantzko prozesu etengabe bat izan beharko du, eta lagundu egin beharko du deskolonizazioa beste eremu batzuetara eramaten: etikora, ekonomikora eta politikora.

Nolanahi ere, uste dut, gorago esan dudan moduan, Kulturarteko Unibertsitatearen proiektua proiekturik erradikalena dela jakintzaren geopolitikari dagokionez eta aldaketa epistemiko erradikalak, eta, beraz, baita etikoak eta politikoak ere, etorkizunean aurrera eramateko balizko bideei dagokienez. Eta elkarrizketa hau amaitu nahi nuke niretzat erradikala den Kulturarteko Unibertsitatearen proiektua aldarrikatzen, eta proiektuaren zenbait paragrafo aipatzen, *ICCI-Rimai Buletinean* agertzen den bezala:

Orain arte zientzia modernoa bakarrizketa batean murgilduta egon da, eta bere buruari ematen zizkion egiaren oinarriak, modernidade mendebaltarraren parametroetatik. Haren oinarritzko kategoriak beti buru-erreferentzialak ziren; alegia, modernitatea kritikatzeko beharrezkoa zen modernidadeak berak egindako kontzeptuak bereganatzea, eta beste herri batzuen alteritate eta desberdintasuna ezagutzeko ere beharrezkoa zen modernidadearen matritzetik sortutako kontzeptuak bereganatzea.

Horregatik, modernidadetik kanpo zeuden herri, nazio edo tribuak ulertzeko, etnologia edo antropologia bezalako zientziak sortu dira, zeinetan behatzen eta aztertzen zuen subjektuak ezin baitzuen ez konprometitu ez kutsatu aztertutako objektuarekin. Herri indigenak azterketa, deskribapen eta analisirako objektu bilakatu ziren.

CW Zientzia modernoa bakarrizketa batean murgildu baldin bada eta jakiteko baldintzak beti boterearen baldintzen ondorioak baldin badira, orduan nola sor daitezke elkarrizketa baterako baldintzak? Nola artikula daiteke kulturartekotasuna

epistemologiaren eta jakintzen sorkuntzaren mugen barruan? Jakintzaren giza abenturari nola egin dakizkioke ekarpenak iturburu berrietatik?

WM Kulturarteko Unibertsitatea dimentsio teoriko horretantxe dago pentsatuta, baina dimentsio deontologiko eta etiko bat ere badu, zeinean ardatz egituratzailea kulturartekotasunaren ideia baita, errotiko desberdintasunak onartu eta mundu justuago, bidezkoago eta toleranteago bat eraikitzeke proposamena den aldetik.

Betancourt-en argudioan agertzen den “kulturartekotasun” kontzeptura itzulita, ez dut inolako zalantzarik planteamendu erradikal baten aurrean gaudela, zuk diozun bezala barne kolonialismoa desegiten eta jakintza eta boterea barne desberdintasun kolonialetik sendotzen hasi dena. Estatu Unibertsitateetan (Andetarrean, esaterako) zein pribatuetan (hala nola, Javerianan) ezartzen diren proiektu aurrerakoiek ezingo dute proposamen horien aurrean ezikusiarrena egin. Estatu Batuetako Unibertsitateei dagokienez, nola pribatuek, Duke, esaterako, hala estatuarenek, adibidez Michiganeakoak, Kulturarteko Unibertsitatearen proiektua bezalakoetan tresna indartsu bat aurkituko dute alor-ikasketetan, Estatu Batuetako “Latinoamerikar Ikasketetan” dagoen boterearen kolonialitatea desegiteko. Izan ere, egitura horietan, asmorik onenarekin askotan eta ezkerretik, oraindik ere sinesten dute jakintza beste leku batzuetan dagoela baina ez preseski Kulturarteko Unibertsitateak formulatu eta gauzatzen duen lekuan. “Indiarrek” beren unibertsitatea dutenez, eta bertan buru-ulerpena eta epistemologia moderno, mendebaltarraren ikasketa gauzatzen denez, zer premia geratuko da “indiarrek aztertzeke”, Kulturarteko Unibertsitatearen proiektuak berak formulatzen duen bezala?

Kulturarteko Unibertsitatea da, beharbada, ez akademikook bakarrik, baizik eta Estatuak eta gizarte zibilak orobat aurre egin behar diogun planteamendu erradikalena. Eta hori hala izanik, nazionalitate bakar edo bikoitzeko profesionalak eta herritarrak garen aldetik, onartu egin behar dugu. Erronka handienetako bat da Kulturarteko Unibertsitatearena bezalako proiektuei ekarpenak egitea jakintzaren deskolonizazioa aurreratuko duten lanen bitartez, batez ere ekonomiaren eta zuzenbidearen esparruan. Printzipio horiek formulatuta zeuden Anibal Quijano-k azken hamar urteotan aurreratutako ikerkuntza eta argudioetan. Boterearen kolonialitateak jakintzaren kolonialitatea ekarri zuen, eta jakintzaren kolonialitateak lagundu zuen lege sistema indigenak desegiten (batzuetan asmo onekin), baita filosofia eta antolakuntza ekonomiko indigena desegiten ere (inoiz ez asmo onarekin). Beste aldetik, gaur egun intelektual indigenak berak zuzentzen ari dira mendeetan eta mendeetan egindako eta boterearen eta jakintzaren kolonialitateak gauzatutako hutsegite historikoak; Marcelo Fernandez intelektual aymarak “Aylluren legea”ren inguruan eta Simon Yampara Huarachi intelektual orobat aymarak “ekonomiaz” egindako lanez ari naiz. Nire ustez norabide aldaketa hori egin behar da, eta genealogia kontzeptual berriak eraiki, zeren eta Huntington bezalakoek (eskuinarentzat) eta Zizek, Laclau, Bourdieu (edo are hobeto, Blairren aholkulari den Gidden zein Schroederren aholkulari den Beck) bezalakoek ezin baitute jarraitu desberdintasun kolonialaren “beste aldeko” pentsamendu kritikoa gidatzen. Horregatik du halako garrantzia genealogia kontzeptual horietan dauden jakintzaren geopolitikak pentsatzeak. Hau da, haietan dauden jakintzaren geopolitikak ez hartzea

azterketa baten gai moduan, eta bai haietatik “kanpo” dagoen ikuspegi batetik egitea. Jakintzaren geopolitikaren kanporik ez dago, ordea, desberdintasun inperialaren eta desberdintasun kolonialaren kanporik ez dagoelako! Jakintzaren geopolitiken auzi nagusia da, lehenik, ulertzea zer-nolako jakintza sortzen den “desberdintasun kolonialaren aldetik”, nahiz eta kritikoa izan, eta zer motatako jakintza sortzen den “desberdintasun kolonialaren beste aldetik” (bi jakintzok desberdinak izango dira Latinoamerikan, Kariben, Asian, Afrikan eta Europan edo Ipar Amerikan afroamerikarrei, latinoei, pakistandarrei, magrehtarrei, eta abarri dagokienez), hau da, desberdintasun kolonialaren bigarren mailako esperientziatik; halaxe egiten dute, adibidez, Marcelo Fernandezek eta Simon Yampara Huarachik Andeetan edo Lewis Gordon-ek eta Paget Henry-k Kariben, edo Gloria Anzaldúa-k chicanoen artean edo Rigoberta Menchuk Guatemalan edo Zapatistak Mexikoko hegoaldean, edo al-Jabri-k Marrokon eta Ali Shariati-k Iranen edo Vandana Shiva-k eta Ashis Nandy-k Indian. Jabetzen naiz badaudela Europan eta Estatu Batuetan izen horiek arreta handiz hartzen dituzten intelektual “aurrerakoi” eta “postmodernoak”, zinezkotasun nazional edo funtsezkoetatik mesfidati, nahiago dutenak Mendebaldeko pentsamendu modernoaren genealogia hegemonikoen alde egin. Hortxe dago, bada, etorkizuneko eztabaida, kulturartekotasunaren, jakintzaren geopolitikaren eta desberdintasun epistemiko kolonialaren benetako eztabaida.

WALTER D. MIGNOLO Argentinan jaioa eta 1984an estatubatuar herritartasuna hartu zuen. Kultur antropologia eta hizkuntza erromanikoak irakasten du Duke Unibertsitatean (AEB) eta unibertsitate bereko Center for Global Studies and the Humanities delakoaren zuzendaria da. Haren ikerkuntza jakintzaren geopolitiken eta jakitearen kolonialismoaren inguruan zentratzen da. Kolonialismo globalaren eta kapitalismoaren historiaren inguruko haren azterketen artean, honako hauek nabarmen litezke: *The Darker Side of the Renaissance: Literacy, Territoriality and Colonization* (1996, bigarren edizioa; The University of Michigan Press, 2003), *Local Histories/Global Designs: Coloniality, Subaltern Knowledges, and Border Thinking* (2000; espainiar edizioa: Ediciones Akal, 2003), *The Idea of Latin America* (Blackwell Press, 2005). Argitaratu dituen liburuen artean, azpimarragarria da *Capitalismo y geopolítica del conocimiento: eurocentrismo y filosofía de la liberación en el debate intelectual contemporáneo* (Ed. Signo, 2001).

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu